

Kanalak

Kanalak gure enpresaren eta bezeroen arteko lotura adierazten dute.

Gure proiektua herritarrengana iristeko hasiera batean, kanal zuzen bat sortuko genuke, gure enpresa eta bezeroaren arteko harremana zuzena izateko.

Gure produktua bezeroengana iritsi dadin gure produktua gehien interesatzen zaien pertsonak zein diren inbestigatu eta haien gana joango ginateke. Bestalde agian beste enpresa ezagunago baten bidez salduko genuke, erosleak lortzeko. Edota orain jende askok erabiltzen dituzten sare sozialak agian aukerak eman ditzakete bezeroak lortzeko. Edota orain hain ezagunak diren "influencer" deituriko pertsonekin kontaktuan jarri eta gure produktua saltzeko dirua ordaindu.

Komunikazio arlorako, gure email-a ipiniko genuke eta norbait email-etara soilik arduratu gure bezeroei beraien kezka edo arazoak lehenbailen argitu eta konpontzeko.

Lortutako bezeroekin beraien iritziak guk izango dugun web orrialden txertatzea gustatuko litzaguke, horrela gustatu ez zaizkien gauzak hobetu eta konpontzerik ditugu. Gure enpresa handitzen doan eanean, gure produktua ere hobea izan dadin bai kalitateari begira, bai gure bezeroen beharrak asetzera begira, hobea izango da, gure bezero guztiak gustora egon daitezen.

Gure produktua saltzeko hasiera batean denda online bat irekiko genuke, proiektuen ideien argazkiak, hauek nola sortu diren prozesua azalduz eta prezioa jarrita. Bertan gurekin kontaktatu ahal izateko lehen azaldu berri dudan bezala helbide bat ere egongo litzateke, edozein zalantza argitu ahal izateko. Gure webgunean erostean lehen azaldu bezala Seur transporte enpresarekin elkarlanean arituko ginateke beraien gure produktuak zuen etxeetara iristeko. Bestalde, enpresa handitu ahala, lokal batean aurkeztu ahal izateko aukera ere izatea gustatuko litzaguke, zeharkako kanala, eta ahal izanez gero, propioa.